

## **VITAL FUNDAZIOA EMAKUMEZKOEN BOLEIBOL TXAPELKETEN OINARRIAK**

**Antolatzailea:** Vital Fundazioa da txapelketaren antolatzailea, eta Araban emakumezkoen kirola sustatzeko duen programaren barruko ekimena da hau.

**Helburua:** Emakumezkoen kirola sustatzea, batez ere, 9 eta 16 urte bitarteko nesken artean, Vitoria-Gasteizen eta Araban. Emakumezkoen kirola sustatzea, eskolaz kanpoko jarduera den aldetik ez ezik, lanerako irtenbide izan daitekeen aldetik ere, joko garbia eta lehiakortasun osasuntsua sustatuz.

**Kategoriak eta adinak:** Taldeek 9 eta 16 urte bitarteko neskez osatuak izan behar dute oso-osorik. Honako hauek izango dira kategoriak: Benjaminak, 2009-2010ean jaiotakoak; Alebinak, 2007-2008an jaiotakoak; Infantilak, 2005-2006an jaiotakoak; Kadeteak, 2003-2004an jaiotakoak. Onartu egingo da jokalaria bat bere adinaren arabera dagokion maila baino hurrengo goragoko mailan dagoen talde batean sartzea. Ez da alderantzizko kasurik onartuko, hau da, jokalaria batek adinez dagokion maila baino behegaroko mailan batean jokatzea . \*

**\*Salbu eta, kasu jakinen batean, antolakuntzak kontrakoa erabakitzen badu.**

**Jokalekua:** Estadio Fundazioaren kirol instalazioetako erabilera anitzeko kiroldegia.

### **Vital Fundazioa Emakumezkoen Txapelketaren arauak (2018/12/29):**

**Jokalekua:** Estadio Fundazioko zelaietan zehaztutako instalazioek mugatua izango da.

**Iraupena:** Talde kopuruaren araberakoa izango da. Denbora mugatua izango da, 10 eta 15 minutu partiduko.

Jokalariek jokorako arropa egokiak jantziko dituzte.

Antolakuntzak emango dizkie jokalariei lehiaketaren kamisetan eta lehiaketan erabiltzeko petoak.

Partida guztietan epaile bat egongo da eta haren erabakiak apelaezinak izango dira.

Jokalarien errotazioa egin daiteke, beti ere, epaileek eta ordezkariak hala adierazi ostean.

Puntuazioa: Irabazitako partidua, 2 puntu. Galdutako partidua, puntu 1. Partidura aurkeztu ezean, 0 puntu.

Bertaratzen ez den taldea, txapelketatik kanpo geratuko da une horretan bertan.

Antolakuntzak zehaztuko ditu partiduen ordutegiak.

Antolakuntzak eta bere diziplina batzordeak beretzat gordetzen dute araudia betetzen ez duten jokalaria edo taldeak botatzeko eskubidea.

**Sariak:** Parte-hartzaile guztiei oparituko zaie motxila bana, programaren kamiseta eta pultsera. Gainera, txapelketaren irabazleek opari gehigarria eta domina ere jasoko dituzte.